



## TXATXILIPURDI ELKARTEAREN ESPERIENTZIA

**Elena Herrarte**

*Arrasateko Txatxilipurdi elkarte*

Helbide elektronikoa: [idazkaritza@txatxilipurdi.com](mailto:idazkaritza@txatxilipurdi.com)

### OINARRIAK

Txatxilipurdi Elkarte Arrasateko euskara elkarte bat da. Herriko haur eta gaztetxoaren artean euskararen erabilera areagotzea du ardatz eta horretarako aisialdian kokatzen du bere eskuartzea. Aisialdia beraz, bitarteko gisa lantzen du baina elkartearen iparra euskararen erabilera indartzean dago. Aisialdia tresna gisa erabiltzeko ordea, ezinbestekoa da esparru horretan kalitatez aritzeko gaitasuna izatea eta Txatxilipurdik bere sorreratik, esparru honetako espezializazio eta etengabeko garapena bizi izan du. Honela, aisialdian espezializaturiko euskara elkarte delako baiezta dezakegu.

Euskararen normalizazioaren lanketari euskara elkarten bitartez duela ia 25 urte ekin zitzaion, lehenengo euskara elkarte sortu zen garai hartan. Hastapenetatik, haur eta gaztetxoekin egin beharreko ahaleginak garrantzi berezia izan du, haiek baitira hizkuntza komunitatearen etorkizuna. Bide honetan, proiektu, egitasmo eta esfortzu handiak egin dira.

Azken 30 urteetan, euskarazko irakaskuntzak aurrerapen handia izan du baina, ez dugu ahaztu behar, hizkuntzaren normalizazioa ez dagoela osoki eskolaren esku, nahiz eta onartu horren egitekoak zer esan

handia duela hizkuntzaren sozializazio eta normalizazioan. Eskolan, euskararen ezagutza osoa lortzen da, hizkuntzaren ibilbide naturala kulturekin osatuz.

Esan bezala, ordea, ezin zaio hizkuntzaren normalizazioaren ardura guztia eskolari atxiki, edozein hizkuntzaren normalizaziorako gizartea bere osotasunean hartu behar da. Beraz, gizarte eragile ezberdinek hartu beharko duten lana da euskararen normalkuntzarako egiteko guztia. Eskolak haur eta gaztetxoek denboran duen pisu kuantitatiboari so egiten badiogu, konturatuko gara haien bizitzaren %12 betetzen duela. Lo dauden aldiak berriz %17 eta beste %71 bizitzaren esparru ez formalek osatzen dutela, tartean aisialdiak.

Txatxilipurdik, haur zein gazteen eguneroko errealitatea kontuan izanik aisialdiaren euskaratzea du helburu. Aisialdiari, betidanik egon bada ere, gaur egun arte ez zaio egun ematen zaion tokia eman gizartean, garrantzi gutxiko denbora bat bezala ulertu izan da eta ondorioz, esate baterako hezkuntza arautuarekin gertatzen ez den bezala, bere inguruan eginiko ikerketa eta sakontzeak ez dira hain ugariak. Hizkuntzaren ikuspegitik ordea, egun jakina da hainbat hizkuntza ohitura aisialdi momentuetan gauzatzen direla. Aisialdian egoten baikara eroso gure bizitzako edozein erabaki hartzeko; azken batetan, nahi duguna egiteko ditugun momentuak dira aisialdikoak. Egun, aisiaren definizioa 3 ezau-garririkin lotuta agertzen zaigu: librea da, askatasunezkoa eta gozamenarekin lotua. Gainera, badakigu, funtzio garrantzitsua betetzen duela norbanakoon bizitzan eta garrantzi hau haur eta gaztetxoengan oraindik eta handiagoa dela esan daiteke, haien garapen eta ikaskuntza eskolatik kanporako beste esparru guztietara ere zabaltzen baita.

Haurtzaroko etapa ezberdinetan, haurrak bere aisialdian eta jolasaren bidez etorkizunerako baliagarriak izango zaizkion ezagutzak jasoko ditu; jolasaren bitartez bere errealitatea ezagutzen joango da eta aldi berean etorkizunerako prestatzen: gaitasun sozialak, emozionalak, fisikoak... garatuz.

Gazte garaian, aisialdia gaztearen askatasun momentu bihurtzen da, bere ideiak kanporatu ahal izango dituen unea izango da eta hor eratuko dira bizitzarekiko hartu beharreko jarrera eta portaera ugari. Gazteen arteko harremanak ere maila handi batetan aisialdian eratzen dira, hor hartuko ditu bakoitzak taldean egoki aritzeko roll eta talde dinamikarako arau ezkutuak, hizkuntzarenak barne.

Aisialdiak beraz, norbanakoon bizitzan eta bereziki haur eta gaztetxoek garapenean duen garrantziaz jabetuta, 80. hamarkadaren amaieran esparru hau euskararen erabilera areagotzeko bere lanketari heldu zitzaion. Txatxilipurdi gogoeta hauen ondorio bat da.

---

*Ezin zaio hizkuntzaren normalizazioaren ardura guztia eskolari atxiki, edozein hizkuntzaren normalizaziorako gizartea bere osotasunean hartu behar da. Eskolak haur eta gaztetxoek denboran duen pisu kuantitatiboari so egiten badiogu, konturatuko gara haien bizitzaren %12 betetzen duela. Lo dauden aldiak berriz %17 eta beste %71 bizitzaren esparru ez formalek osatzen dutela, tartean aisialdiak.*

**Gazte garaian, aisialdia gaztearen askatasun momentu bihurtzen da, bere ideiak kanporatu ahal izango dituen unea izango da eta hor eratuko dira bizitzarekiko hartu beharreko jarrera eta portaera ugari. Gazteen arteko harremanak ere maila handi batetan aisialdian eratzen dira, hor hartuko ditu bakoitzak taldean egoki aritzeko roll eta talde dinamikarako arau ezkutuak, hizkuntzarenak barne.**

## **SORRERA ETA BILAKAERA**

80. hamarkadaren hasieran, Arrasaten, euskararen ezagutza %45ekoa zen, baina erabilera %7koa. Egoera honekin kezkatuta lagun taldea bildu zen eta udaletxean euskara departamendua eskatu eta elkarte bat sortzea erabaki zuten. Horrela sortu zen AED, Arrasateko euskararen normal-kuntza helburutzat izanik. Euskararen erabilera ziurtatuko zituen esparruak sortu edo bultzatu eta esparru ezberdinak euskalduntzeko sentsibilizazio kanpainak bideratzeari ekin zioten.

Udaletxeari zerbitzuen kudeaketa eskaintzak egin zitzaizkion, beharra zegoen lekuan behar hori euskaraz asetzeko, ondorioz, lantalde ezberdinen sorrera gertatu zen: Kultura eta sentsibilizazioa, emakume taldea, lan mundua euskalduntzeko taldea, euskarazko prentsa (Arrasate press), soziolinguistika aldizkaria (Jazten), AISIALDI TALDEA (Haur eta gazteen aisialdia euskalduntzeko taldea), gazte taldea (gazteen artean sentsibilizazio lana egingo duena), ikastetxeen mahaia, zahar-berri (euskaldun zaharrak eta berriak elkartuko dituen)...

Denbora pasa ahala, lantalde batzuek bultzatzen zituzten ekintzak gehitu egin ziren, eta AED-ko Zuzendaritza Batzordean oso gai ezberdinak ziren tratatzeko, ondorioz, elkarte autonomo bihurtu ziren:

-Euskalan: Lan mundua euskalduntzeko.

-Arko: Arrasateko komunikabidea euskalduna.

-Ekin: Emakumeak eragiten duen arloetan lan egiten duena.

**-Txatxilipurdi: Haur eta gazteen aisialdian eragiten duena. (1.994an erakundetu zen).**

1988. urtean lehen liberatua izan zuen egun Txatxilipurdi izenarekin ezagutzen dugun proiektuak AEDren baitan. *Uztaileko udaleku irekiak* izan ziren antolatu zen lehen ekintza, herrian B ereduko neska-mutilek eskola orduetatik kanpo euskara erabil zezaten bilgune edo espazioak sortzeko helburuz. Udaleku haietan B eta D ereduko haurrek hartu zuten parte. Urte berean *larunbatetako ekintzak* sortu ziren, urte osoko iraupenarekin. Gaur, 19 urte beranduago, 2 ekintza horiek antolatzen jarraitzen du elkar-teak, zenbait aldatetarekin eta beste hainbat ekintzez osatutako eskaintza orokorrago baten barruan.

2 urte beranduago, 1990.ean, *begiraleentzako formakuntza ikastaroa* antolatu zen lehenengoz. Bi urte haietan zehar, egindako ekintzetan partaidetza handia izan zen eta parte hartu zuten begiraleak ere asko izan ziren. Hori zela eta, begirale horiek lanean aritzeko trebatu egin behar zirela erabaki zen.

1991. urtean *Santa-Marinako txokoak* atek ireki zituen. Era berean, *Biheko* izenarekin gaztetxo taldea sortu zen. Hurrengo urteetan, beste 2 gazte talde ere sortu ziren elkartearen inguruan: *Jotasue* eta *Hizkepot*.

1991. urtean antolatu zen baita ere Txikilandia gabonetako haur parkea lehenegoz.

1992.ean, *Iraileko udalekuak* jarri ziren martxan. Eta urte bete beranduago berriz, lehen *ludoteka* ireki zen herrian.

1994.ean, elkartearen era autonomoan lanean hasi zen urte berean, *Musakola* eta *San Andreseko Gazte Txokoak* ireki ziren.

1995. urtean, sortu zen *Txatxiartitstak* antzerki taldea, duela 3 urtera arte lanean jardun duena.

1996. urtean San Juan eguneko haurren eguna antolatu zen lehengo aldiz, *Eguzkilaru*, eta baita *Udaleku Itxiak* ere, 12-16 urte bitarteko gaztetxoek zuzenduta.

1997. urtean berriz, urte beteko ikerketa lana egin ondoren *Aisialdia eta Eskola* proiektua jarri zen abian herriko eskola batetan. Proiektu honen bidez, aisialdia lan tresna modura eskolara eramaten da LH eta DBH mailatan lantzen da eta euskararen inguruko ezagutza, erabilera eta motibazioan eragitea du helburu.

Hurrengo urtean, herriko 3. gazte txokoak ireki zituen bere ateak, *Erguingoak* alegia.

2004. urtean, gabonetako kanpainarekin lotuta, *Jostailu-Truke Merkaturua* jarri zen abian. Herriko haurren artean kontsumo ohitura osasuntsuak eta baliabideen trukea eta aprobetxamendua sustatu nahian egun gizartearen nagusitzen den kontsumokeriaren aurrean.

Orain arte Arrasatera begira sortutako ekimen ezberdinak aipatu badira ere, Txatxilipurdi elkarteak bere ibilbidean heritik kanpora ere hainbat jarduera gauzatu ditu, tartean aipa daitezke: Oñatiko Gazte Lekua (egun Oñatitik bertatik kudeatzen dena) Gatzagako ludoteka... beste izaera bateko hainbat eskaintza ere landu dira: *euskaraokea* adibidez.

Bilakaera honetan ikusten den moduan, urteen joanean, elkarteak hedapen azkarra eta oparoa izan du eta Arrasateko haur eta gaztetxoek aisia beharrak euskaraz asetzeko eskaintza ezberdinak egitea lortu du, hasierako helburu eta ilusioak gorpuztuz eta kontsolidatuz.

## **TXATXILIPURDI ELKARTEA GAUR**

2007. urtean elkartearen 800 bazkide inguruk osatzen dute, haiek dira elkartearen motorra eta babeserak, baita proiektua indartzen eta zentzuz betetzen dutenak. Horien artean badira elkartearen modu iraunkor edo puntualago batetan kolaboratzen dutenak: zuzendaritza batzordean parte hartuz, egitasmo ezberdinen lanketan parte hartuz...

Bestalde, 30 liberatu ari dira urte guztian zehar kontratupean lanean Txatxilipurdi, horietatik 16k herrira begira gauzatzen diren jardueretan dihardute. Hauxe gainera, 50 begirale baino gehiagok hartzen dute parte elkartearen antolatzen dituen ekintza puntualetan (jaietan, tailerretan, larunbatetako ekintzetan, udalekuetan, gabonetako parkean, ikuskizunetan...).

---

*Elkartearen misioa betetzera zuzenduriko jarduera guztiek, Arrasateko haur eta gaztetxoek artean euskararen erabilera areagotzeko egiten den ahalegin guztiek beraz, multzo bat osatzen dute, Arrasateko normalizazio proiektuan jasotzen dira hauek. Talde honetan, 2 lan ildo ezberdin bereizten dira.*

**Euskararen erabileran positiboki eragitea izan da euskara elkartearen helburuen ardatz nagusia.**

**Beraz, beren eragina aztertzeko logikoa dirudi erabilerak izandako bilakaeraz hitz egitea. 1988. urtetik aurrera urtez urte egin dira Arrasateko herritarren euskararen kale erabileraren neurketak, Txatxilipurdik lehen ekintzak antolatzeari ekin zion urte beretik hain justu.**


Arrasatera begira antolatzen diren ekintza ezberdinetako parte hartze maila honako da egun:

<b>ESKAINNTZA</b>	<b>ERABILTZAILE KOPURUA</b>
Ludotekak	400
Ludoteka ibiltaria	300
Gazte Txokoak	120
Udaleku irekiak	280
Udaleku itxiak	130
Aisialdia eta Eskola	360
Jostailu-Truke Merkatua	300
Txikilandia	2500
Eguzkilaru	1000
Larunblai	270
Urtebetetze festak	200

### JARDUERA EREMUA

Txatxilipurdi Elkarteak gaur, bere hastapenetan zuen misio bera izaten jarraitzen du: Arrasateko haur eta gaztetxoaren artean euskararen erabilera areagotzea. Helburu horretara bidean, hasierako esparru berdinean kokatzen du bere lana: aisialdian edo hezkuntza ez formalaren esparruan alegia. Baina bilakaera deskribatu dugun atalean adierazten den moduan, bere lan ildoak zabalduz eta osatuz joan dira urteen poderioz.

Egun elkarteak bere jarduera 3 multzo ezberdinetan banatzen du. Grafikoki, etxe edo eraikuntza baten itxura eman diezaiokegu jarduera honi, hona hemen:



## TXATXILIPURDIREN ARRASATEKO NORMALIZAZIO PROIEKTUA

Elkartearen **misioa betetzera zuzenduriko jarduera** guztiek, Arrasateko haur eta gaztetxoek artean euskararen erabilera areagotzeko egiten den ahalegin guztiek beraz, multzo bat osatzen dute, Arrasateko normalizazio proiektuan jasotzen dira hauek. Talde honetan, 2 lan ildo ezberdin bereizten dira:

1. Haur eta gaztetxoei eskaintzen zaizkien **zerbitzu ezberdinak**: ludotekak, gazte txokoak, udaleku ireki eta itxiak, Aisialdia eta Eskola proiektua, gabonetako parkea (Txikilandia) eta jaien antolaketa, jostailu truke merkatua, urtebetetze festak...

Zerbitzu hauen bidez, haur eta gaztetxoek hizkuntza erabileran eragiten da, egunegun, era naturalean horretarako eremuak eta tresnak eskainiz. Une honetan, Arrasateko proiektuaren inguruan **16 langile liberatu eta 50 begirale** inguru aritzen dira urte guztian zehar lanean.

2. **Sustapen eta sentsibilizazio arloan** ere egiten da lana: bazkideekin, haur eta gaztetxoekin, gurasoekin, begiraleekin eta beste agente batzuekin. Lan ildo honen bidez, elkartearen diskurtsoa, proiektua bera, gizarteratu nahi da, ahalik eta hedapen eta babes handiena izan dezan. Izan ere, Txatxilipurdik aisiako zerbitzu emaile bat baino askoz ere gehiago izan nahi baitu herrian: euskararen alde kontzienteki eta kalitatez martxan dagoen mugimendu bat izateko grina du eta bide horretan herritarren inplikazioa ezinbestekoa du. Horixe da hain zuzen proiektuaren izaeraren ezaugarri nagusia.

2 lan ildo horiek elkarren osagarri dira, batak, esan bezala, elkartearen nortasuna eta izatearen arrazoia lantzen du, sustapen eta sentsibilizazioaren arloak. Zerbitzuen bitartez berriz, elkartearen helburua lantzen da, haur eta gaztetxoekin beraien aisiako esparru naturalean zuzenean eraginez.

## ARRASATETIK KANPOKO ZERBITZUAK

Arrasaten garatzen duen jardueraz gainera, badira zenbait urte Txatxilipurdí herritik kanpo ere zerbitzu ezberdinak eskaintzen hasi zela. Hauek, proiektu nagusia sostengatzen duten oinarri bat dira, grafikoki adierazi den moduan.

Zerbitzu hauek ez dira inondik inora elkartearen muinarekin edo misioarekin zuzenean lotzen; baina helburu nagusi horretara bidean beharrezkoak direla esan daiteke.

Herritik kanpo eskaintzen diren zerbitzuen bidez, 2 helburu ezberdin lantzen ditu elkarteak: batetik, proiektu orokorra finantzatzeko balia-

---

*Egindako lanaren bidez, haur eta gaztetxoek lagunarteko giroan eragin dugu; euskaraz jolas egiten, maitatzen, haserretzen eta beren sentipen ezberdinak bideratzeko tresnak eskaini dizkiegu haur zein gaztetxoei, euskararekiko duten sentsibilizazioan eta sentimentuan ere eragin dugun bitartean.*

**Gizartearen ezaugarri eta beharrak etengabe aldatuz doaz. Hizkuntza komunitatearen egoera ere aldatuz doa. Etorkinen etorrerak adibidez, testuingurua aldatzea ekarri du, joera hau hazkorra izango da aurrera begira ere. Bitarteko teknologikoen gizarte presentzia hazkorrak ere, aisialdia, komunikazio ereduak eta hizkera kodeak aldatzea ekarri du. Txatxilipurdik, beste eragile batzuekin batera, joera hauek eta beste batzuk ezagutu, aztertu eta euskararen normalizaziora bidean arrisku izatetik aukera izatera pasatzeko bideak ireki behar ditu.**

bide ekonomikoak lortzen ditu. Bestetik, elkartearen esperientzia eta lan eredia (euskararen erabilera areagotzera bideratua, kalitatezkoa, hezitzaila, partehartzaila eta herrikoia) hedatzen ditu.

Kanpoan ematen diren zerbitzuek beraz, badute helburu ekonomik. Zerbitzu bat emanez, baliabideak lortzea izaten da helburu bat. Baina baliabide horiek ondoren, berriz ere gizarteari itzultzeko bokazioz egiten du lan hau elkarteak; proiektu ezberdinak landuz, lanerako material eta metodologia ezberdinak sortzera bideratuz... gizartearen onuran inbertituz, elkartearen misioaren ildoaren barnean beti ere.

Arrasatetik kanpora, batetik aisialdiko zerbitzu finkoak eskaintzen ditu: gazte leku eta ludoteken kudeaketa esaterako. Une honetan: Aretxabaletan, Eskoriatzan, Antzuolan eta Zaldibarren ari da lanean. Bestalde, udaleku irekien antolaketa ere gauzatzen du. Azkenik, zerbitzu puntualagoak ere eskaintzen ditu: jaien antolaketa (tailerrak, ikuskizunak...), formazioa, Jostailu Erakusketa...

## ZEHARLERROAK

Elkarteak egiten dituen zerbitzu eta gainerako lanen osagarri, beste hainbat zeharlerro ere lantzen dira. Arrasateko proiektua sostengatzen duen bigarren oinarria osatzen dute talde honetako jarduerak. Haien bidez, Txatxilipurdiren lan esparrua aberastea eta detektatzen diren hutsuneak betetzea lortu nahi da. Talde honetan 2 ildo nagusi aipa daitezke: batetik proiektu berriak eta bestetik formazioa.

Proiektu berrien bidez, euskararen erabilera areagotzeko eta aisian jarduteko beharrezko ikusten diren materialak, metodologiak eta ikerketak gauzatzen dira batik bat. Hauek dira esate baterako azken urteetan gauzatu diren proiektuak:

– *Salamalekum Euskalerrira*: Euskaraz eta hassanieraz jolas egiteko bikote jolasa. Udaran gurera hurbiltzen diren saharako hurrekin lana egiteko sortua.

– *Munduko Jolasak*: 5 kontinenteetako 100 jolasetik gora batzen dituen CD-a.

– *Aisialdi birtuala: euskararen sustapenera bidean arriskutik aukerara!* Ikerlana: teknologia berriak eta aisialdia aztergai dituen ikerketa, euskararen sustapenean baliabide teknologikoak nola erabili aztertzen duena besteak beste. Ikerlan honekin lotuta material praktikoa ere sortu da, atera ziren ondorio nagusiak gizarteratzeko asmoz. Tartean, *teknologia berrien esparruan gazte hizkera indartzeko helburua duen poster bat eta hezitzaila zuzenduriko gida* aipa daitezke.

– *Kulturarteko udalekuak: garapen metodologikoa* ikerlana: aniztasuna aintzat hartuko duten udaleku inklusiboak nola egin euskara helburuak mantenduz aztertu da bertan.

Zeharlerroen barruan 2. lan lerroa formazioa dela esan dugu. Beste edozein erakundetan gertatzen den moduan, etengabeko prestakuntzak garrantzi handia dauka Txatxilipurdi Elkartearen. Gizartea ere etengabe aldatzen doa eta Txatxilipurdi gai izan behar du testuinguru berrira etengabe egokitu eta bere beharrak asetuz elkartearen helburuen lanketari eusteko. Elkarteak batez ere liberatuei eta begiraleei zuzenduriko saioak antolatzen ditu. Gurasoentzako ere zenbait ekintza antolatzen dira eta azkenik, baita bazkide edo herritarrei zuzendurikoak ere, oso puntualki bada ere.

## **EGINDAKO LANAREN ONDORIO ETA ERAGINAK**

Euskararen erabileran positiboki eragitea izan da euskara elkartearen helburuen ardatz nagusia. Beraz, beren eragina aztertzeko logikoa dirudi erabilerak izandako bilakaeraz hitz egitea. 1988. urtetik aurrera urtez urte egin dira Arrasateko herritarren euskararen kale erabileraren neurketak, Txatxilipurdi lehenekintzak antolatzeari ekin zion urte beretik hain justu.

Urte hauen joanean, emaitzek erabileraren joera hazkorra adierazten dute. 1988.eko datuetara jotzen badugu, ikusiko dugu herritarren kale erabileraren batez-bestekoa %11,6koa izan zela, haurren kasuan %24koa eta gazteenean berriz %10,3koa. 1997 eta 2001 bitarteko datuen batez-bestekoak diotenaren arabera, herritarren artean kale erabilera maila %29koa da; haurretan maila honek gora egiten du, %40koa da, gazteena berriz %35koa. Bestalde, azpimarratzekoa da baita ere, duela 20 urte herriko gazteen artean euskararen kale presentzia oso txikia zela eta azken urteetan haurrenarekin parekatuz joan dela.

Dena dela, datu hauek aurrean izanda ere, ez da erraza Txatxilipurdi Elkartearen ekarpena eta eragina zein izan den kuantifikatzea. Izan ere, arestian aurkeztu den bilakaera positiboak beste eragilerik ere izan baitu: euskarazko irakaskuntzak egindako lana, herri mailan eta baita orokorragoan ere egin diren sentsibilizazio kanpainak, euskaltegiek egindako ahalegina... Txatxilipurdiaren eskuarzea, errealitate anitz eta osoago baten barnean kokatzen da eta ezinezkoa da bakoitzaren ekarpen eta eragin konkretua kuantifikatzea.

Hala ere, jakin badakigu eraginik izan duela eginiko ahaleginak. Aurrerago ere aipatu dugu Txatxilipurdi herriko zenbat haur eta gazte-txorengan eragiten duen bere eskaintza ezberdinen bidez. Egun Arrasaten, eskolatik kanpora ere euskal sare zabala eta aberatsa da, haur eta gaztetxoek, beren bizitzako ordu gehienak euskaraz bizitzeko aukera dute, esparru formaletan ez ezik baita aisialdian ere. Erabileran trebatzeko aukera zabala izatea lortu dugu herriko eragile ezberdinen artean eta horixe da hain zuzen euskal hiztun izateko giltza nagusia. Egindako lanaren bidez, haur eta gaztetxoek lagunarteko giroan eragin dugu; euskaraz jolas egiten, maitatzen, haserretzen eta beren sentipen ezberdinak



bideratzeko tresnak eskaini dizkiegu haur zein gaztetxoei, euskararekiko duten sentsibilizazioan eta sentimentuan ere eragin dugun bitartean.

## **TXATXILIPURDI ELKARTEA: ETORKIZUNERAKO ERRONKAK**

Arrasateko euskararen kale erabilera datuen bilakaerak ibilbide positiboa erakusten badigu ere, garbi ikusten da euskarak baduela oraindik erronkarik aurrean eta lanean tinko eta gogoz jarraitu beharko dugula, orainak eta etorkizunak planteatzen dizkigun erronka berriei ilusioz helduz.

Etorkizunari buruz 2 ikuspegitik egiten du azterketa Txatxilipurdik, batetik Arrasaten lantzen dituen helburuak hizpide hartuz, bestetik, maila orokorrago batetan, bere lan esparruari dagokionean:

### *TXATXILIPURDIREN HERRIKO PROIEKTUA: HAUR ETA GAZTETXOEN ARTEAN EUSKARAREN ERABILERA BULTZATZEA*

Herrian egiten duen lanaren ikuspegitik, 4 erronka ezberdin ditu elkarteak aurrera begira:

1. Haur eta gazteentzako eskaintza hobetzeko eta osatzeko ikuspegia mantentzea

Egindako ibilbidea oparoa izan baldin bada ere, elkartearen eragina mantendu eta hedatu ahal izateko ezinbestekoa da eskaintza hobetzea eta etengabean berristeko ikuspegia izatea.

2. Sustapen/sentsibilizazio eta zerbitzuen arteko oreka bilatzea

Esan dugunaren harira, 2 lan lerro nagusi horietan banatzen da elkartearen jarduna. Elkartean 2 arloei garrantzi handia ematen baldin bazaie ere, maiz, zerbitzuetan egiten den ahaleginak xurgatzen du elkartearen indar handiena. Ezinbestekoa da zerbitzuen eta sustapen lanen arteko oreka osasuntsu bat izatea eta zerbitzuen eskaintzan lana egiten den bitartean bazkideen partehartzean, gurasoen inplikazioan, begiraleen sentsibilizazio eta formakuntzan... ere eragitea.

3. Etorkizunerako sustraiak finkatzea: helburuen birkokatzea

Elkartearen bilakaera azkarra eta oparoa izan da sorreratik. Ekimen ezberdinak jarri dira abian baina batez ere praktikan kokatu dira ahaleginak. Intuizioz, elkartearen gidaritzak jakin du egoera berrietara egokitzen. Hala ere, bere sorreratik ia 20 urte pasa diren honetan garrantzitsua da hasierako hipotesi, helburu eta ideiak birplanteatzea, gizartea ere asko aldatu baita urte horietan zehar. Helburu horrekin, 2007. urtean, hasia da Txatxilipurdi gogoeta prozesu bat lantzen eta 3 ardatz izango ditu ipar besteak beste: hasierako helburu eta hipotesien birkokapena eta zehaztapena, jarduera eremuaren birkokapena eta antolaketa eta partehartze ereduaren birdefinizioa.

#### 4. Inguruarekiko harreman sareak indartzea

Txatxilipurdiren proiektua garatzeko, ezinbestekoa da inguruarekiko etengabeko komunikazio eta interakzioan lana egitea: eskolekin, guraso eta gazte taldeekin, bestelako erakundeekin... Osotasun zabalago bateko parte den heinean, guztion arteko osagarritasuna ahalik eta modu efizienteenean landu behar da, hartzeko eta emateko prest egonez, elkarriketa sustatuz.

### MAILA OROKORRAGOKO ERRONKAK

Ikuspegi orokorrago batetik, beste hainbat erronka detektatzen ditu Txatxilipurdik etorkizunera begira:

#### 1. Aisialdiaren errekonozimendua handitzea

Aisialdian modu profesionalean diharduen elkarte izanda, bere lanean garrantzi handia dauka sektore horren gizarte egoerak. Egun oraindik egoera gero eta hobea den arren, euskal gizartean aisialdiak ez du beste lan esparru batzuk duten errekonozimendu maila. Ondorioz, gehiengoak ez dio bere benetako balio hezitzailea eta pertsonon garapenean eta ongizatean duen garrantzia aitortzen. Honek ondorio zuzena du, besteak beste, aisialdian egiten diren inbertsioetan, maiz ez dira behar besteak izaten kalitatezko eskaintzak egiteko. Ondorioz, aisialdiko lan baldintzak adibidez eskasak izaten dira sarri eta sektore honetako profesionalen errotazio maila handiegia izatera bultzatzen du egoerak.

#### 2. Lanaren profesionalizazioa /espezializazioa elkarte izaera kontuan hartuz

Gaur egun inguruneak kalitatez lan egitea eskatzen du gero eta gehiago. Honek beste edozein motako erakundetan gertatzen den moduan, kudeaketa eredu aurreratuak ezartzea eskatzen du, besteak beste antolaketa, lan eta eskuartze metodologiak... etengabe hobetuz. Gainera, euskara elkarte moduan, kudeaketa aurreratu honek bazkide eta herritarren partehartzea kontuan hartu eta integratu behar ditu.

#### 3. Hizkuntza normalizazioko eta aisialdiko azken joerak ezagutu eta proiektuan integratzea

Gizartearen ezaugarri eta beharrak etengabe aldatuz doaz. Hizkuntza komunitatearen egoera ere aldatuz doa. Etorकिन etorrerak adibidez, testuingurua aldatzea ekarri du, joera hau hazkorra izango da aurrera begira ere. Bitarteko teknologikoen gizarte presentzia hazkorra ere, aisialdia, komunikazio ereduak eta hizkera kodeak aldatzea ekarri du. Txatxilipurdik, beste eragile batzuekin batera, joera hauek eta beste batzuk ezagutu, aztertu eta euskararen normalizaziora bidean arrisku izatetik aukera izatera pasatzeko bideak ireki behar ditu.

Erronkak eta zaitasunak ez zaizkio falta Txatxilipurdiri aurrera begira. Baina abantaila garrantzitsuak ditu elkarteak egoera zail guztien artean: proiektuan duen sinesmen eta ilusio maila eta duen babes sozial zabalak. Hori dela eta, gogotsu aurrera egiteko grinaz egiten du egunez egun lana, hobetzeko esperantzaz eta noizbait euskarak normalizazio egoera lortuko dela argi izanez. Bide horretan, erabilera esparruak zabaltzen jarraituko du herriko haur zein gaztetxoaren artean.■